



LEOKA GURASO ELKARTEA

Familia estimatua:

Leoka Guraso Elkarteak urte asko daramatza Elizatxo ikastolarekin elkarlanean, bertako hezkuntza-komunitatea osatzen dugun guztion onurarako.

Lerro hauen bitartez nahi genizuke elkarteak aurrera ateratzen dituen jardueri buruz informazioa eman, bere funtzionamenduaren nondik norakoak azaldu, eta, bide batez, gurekin batera lan egitera gonbidatu.



Zein dira Leoka Guraso Elkartearen funtzioak?

Hauek dira, laburbilduz, Leoka Guraso Elkarteak betetzen dituen funtzioak:

1. Ikastetxea diruz lagundu

Guraso Elkarteak ikastolako hainbat proiektuen finantziaketan parte hartzen du eta sortzen diren behar materialei ere erantzuten saiatzen da. **Urtero**, batez beste, ikastolak **15.000€** jasotzen ditu elkartetik. Arlo hauetara bideratzen da gure dirua:

Eskola materiala: material pedagogikoa, arbela digitalak, literatur ipuinak, psikomotrizitatea lantzeko materiala...

Bertsolaritza

Mekanografia Kurtsoak

Patioaren hobekuntza proiektua

...

Horrez gain, Guraso Elkarteak **irteeretan bazkideentzat deskontuak** egiten ditu.



2. Ikastolako batzorde ezberdinetan partehartzea

Guraso Elkarteak Hezkuntza-elkartea osatzen dugunon arteko komunikazio eta lankidetzaren premian sinisten du eta ezinbestekoa jotzen du ikastolaren funtzionamenduari lotuta dauden batzorde guztietan bere presentzia bermatzea.

Batzorde nagusiak:

Ordezkaritza Organu Gorena
Euskara batzordea
Batzorde iraunkorra
Jaialdiak
Jangela
Azpiegiturak
...

3. Era guztietako zerbitzuak eskaintzea, ikasle eta familien beharretara egokituta

Hauk dira, besteak beste, Guraso Elkarteak antolatzen eta kudeatzen dituen zerbitzuak:

Goizeko zaintza: ikasturte osoan zehar (07:30-09:00).


Eguerdiko zaintza: irailean eta ekainean (12:30-16:30).

Liburutegia*: eguerdiko ikasleentzat irekia (12:30-14:40).

Eskolaz kanpoko jarduerak*: Ipuinak, Gimnasia dibertigarria, Sormen tailerra, Ingeles dibertigarria, Antzerkia, Zirko tailerra, Robotika...

Eskola Kirola: elkarteak kontratatutako kirol arduraduna taldeak eta monitorea koordinatzeaz arduratzen da eta urtero beharrezkoa den ekipamendua eta materiala erosten du.

(*) 2020-21 ikasturtean, COVID-19 dela eta, ez da zenbait jarduerara antolatzerik izan.



4. Beste jarduerak batzuk antolatzea

Gure seme-alabek hainbeste disfrutatzen dituzten ikastolako jarduerak berezietan ere, Guraso Elkarteak buru-belarri aritzen da antolaketan eta lanean. Hauk dira nagusiak:

Santo Tomas azoka: txistorra bokaten prestakuntza eta banaketa ikasle eta irakasleentzat.

Ikasturte bukaerako irteera: Wow parkera, azken urteotan.

Ikasturteko amaierako jaialdia: ekitaldiko muntaia, famili arteko bazkaria, arratsaldeko aisialdia, garbiketa...

...

5. Hernaniko Hezkuntza Plataforman partehartzea

Hernaniko Hezkuntza komunitateko ikastetxe eta guraso elkarteak bertan biltzen dira, eta hezkuntza arazo eta gabeziei buruzko gogoeta egin, nahiz aurre egiteko estrategiak diseinatzea du helburu.

6. Baigararekin hiru hilabeteroko bilera

Baigararen bidez (Gipuzkoako ikastetxeetako Guraso Elkarteak batzen dituen plataforma) diagnosi amankomunak egin eta arazo globalak denon artean partekatzeko aukera du Guraso Elkarteak.

Nortzukosatzen dute Leoka Guraso Elkarteak?

Leoka Guraso Elkarteak euren haurra bertako bazkide duten gurasoek osatzen dute. Guraso elkartearen parte hartzea boluntarioa da eta hilean **12 €**-ko aportazioa egiten da seme-alaba bakoitzeko. Momentu honetan, elkarteak **265** ikasleen gurasoz osatzen da; kopuru osoaren %67a, gutxi gora behera.

Elkarteak kudeatzeaz 12 kidez osatutako batzorde bat arduratzen da.



Nola osatzen da Leoka Guraso Elkartearen batzordea?

Esan bezela, elkarteak kudeatzeaz arduratzen den batzordea 12 kidez osatzen da. Guraso Elkartearen eta bere lanaren egonkortasuna bermatzearen, hobereana boluntarioz osatzea litzateke, baina hori, azkeneko urteotan, ez da posible izan.

Ondorioz, zozketara jotzen da. Zozketan Guraso Elkartearen bazkideen seme-alaben izenak sartzen dira, baina bakarrik HH4-LH4 bitartean daudenak. Urtero 6 izen berri ateratzen dira, aurreko urteko beste 6 beteranoei gehitzen zaizkienak.

Leoka Guraso Elkartearen zikloak bi urte irauten ditu, eta otsailean egiten da aldaketa. Sartu eta lehenengo urtea, ikasteko erabiltzen dute etorri berriek. Guraso Elkartearen ardura nagusia, beraz, bigarren urteko seikote beteranoak eramaten du, lehenengo urteko seikotearen laguntzaz. Horrela lortzen dugu katea guztiz ez etetea eta aurreko ikasturtean jardun direnekin konexioa mantentzea.

Ardurako postuak, 6 izaten dira nagusiki: Lehendakaria, lehendakari-ordea, diruzaina, idazkaria, Tximeleta eta Eskola Kirola. Sei ardura horiek bigarren urteko talde beteranoaren eskuetan gelditzen dira baina ardura eta erabaki guztiak, talde-lanean aurrera eramaten dira.

Kontaktua

e-posta: ampaelizatxo@gmail.com

LEOKA GURASO ELKARTEAREN BALANTZEA GURASOEI dokumentuaren esteka:

https://drive.google.com/file/d/1DqP_SR2fKGySsk5U55Gwbk8gHWxACOaX/view?usp=sharing

